



## ESP- 4/2025

**Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeak 2025eko urriaren 21ean hartutako erabakia. 4/2025 espedientea**

Aipatutako eguneko bileran, Kontrol eta Gardentasun Batzordeak honako erabaki hauek hartu zituen:

**Lehenengo puntua.**- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuak 2025eko urriaren 16an bidalitako jakinarazpenaren berri eman da. Hori dela-eta, Batzorde honek, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen Testu Bateginaren 17.2.b) artikulua arabera, honako erabaki hau hartu du:

### **Erabakia:**

2025eko urriaren 12an Ertzaintzak burututako honako jarduera aztertzeko emandako agindua onartzea: "...Falange Española erakundeak Vitoria-Gasteizen jakinarazitako kontzentrazioaren harira Ertzaintzak ezarritako segurtasun arloko dispositiboa burutu bitartean kontrako manifestazioa bertara abiatu zen. Horren ondorioz, objektuak jaurti, liskar fisiko larriak izan eta hainbat kalte egon ziren. Horri erantzuteko, ertzainek istiluen aurkako materiala erabilita esku hartu behar izan zuten."

Segurtasun sailburuak jakinarazi zuenez:

## EXP- 4/2025

**Acuerdo adoptado en la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco, el 21 de octubre de 2025. Expediente 4/2025**

En la reunión de la fecha indicada, por la Comisión de Control y Transparencia, se adoptaron los siguientes acuerdos:

**Punto Primero.**- Dada cuenta de la comunicación remitida con fecha de 16 de octubre de 2025 por el Sr. Consejero de Seguridad del Gobierno Vasco, esta Comisión, en ejercicio de la atribución conferida por el art. 17.2.b) del Texto Refundido de la Ley de Policía del País Vasco, adopta el siguiente

### **Acuerdo:**

Se acuerda aceptar el encargo y proceder al estudio sobre la siguiente actuación desarrollada por la Ertzaintza el día 12 de octubre de 2025: "...en el transcurso de un dispositivo de seguridad de la Ertzaintza establecido con ocasión de una concentración comunicada por parte de Falange española en la localidad de Vitoria-Gasteiz, una contramanifestación se ha dirigido al lugar produciéndose lanzamiento de objetos, graves enfrentamientos físicos y daños diversos, que han obligado a agentes de la Ertzaintza a la intervención con material antidisturbios".

En la comunicación del Sr. Consejero de Seguridad se informa que:



“...komunikabideetan agertutako zenbait informazioaren arabera, istilu horietan ertzainek gizonezko bat zauritu omen zuten metro gutxira eta aurpegira jaurtitako pilotakada batekin. Horren ondorioz, bere baraila hautsita geratu zen, hortz bat galdu zuen eta beste bi mugiarazi zizkieten.”

“...al parecer, en el transcurso de estos incidentes, y según informaciones aparecidas en los medios de comunicación, un varón resultó herido sufriendo la “rotura de mandíbula, pérdida de un diente y desplazamiento de otros dos como consecuencia de un pelotazo de la Ertzaintza, a escasos metros y lanzado a la cara, realizado por personal policial”.

**Bigarren puntua.**- Aurreko puntuan aipatutako polizia-esku-hartzeari buruzko azterlana egiteko, Batzordeak honako hau eskatu dio Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Segurtasun Sailburuordetzari:

**Punto Segundo.**- A fin de proceder a la realización del estudio sobre la intervención policial referida en el punto anterior, la Comisión acuerda interesar de la Viceconsejería de Seguridad del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco que:

- a) Batzorde honi jakinaraztea Segurtasun sailburuak adierazitako polizia-jarduketa hari buruz balizko ikerketa judizialik hasi ote den. Gainera, zehaztu behar ditu horiek burutu diren epaitegia eta dagokien erreferentzia-zenbakia.
- b) Batzorde honi helaraztea Ertzaintzaren Barne Arazoetako Burutza burututako eginbideen kopia bat, aipatutako polizia-jarduketan gertatutakoa argitzeko asmoz hasitako barne-ikerketari dagokionez.
- c) Deskribatutako polizia-jarduketaren ondorioz, gertakarien tokiari dagokion ertzain-etxean norbaitek zigor-arloko salaketa jarri bazuen, Batzorde honi helarazi behar zaio arestiko polizia-jarduketa horri lotuta ertzainek prestatutako atestatuaren edo atestatuen kopia bana.

- a) Se informe a esta Comisión sobre la eventual incoación de actuaciones judiciales de investigación en relación con la actuación policial a la que se refiere la comunicación del Sr. Consejero de Seguridad, con indicación del juzgado en el que se sustancian y de la signatura de referencia de las mismas.
- b) Se dé traslado a esta Comisión de una copia de las diligencias de investigación interna abiertas por la Jefatura de Asuntos Internos de la Ertzaintza para el esclarecimiento de lo sucedido durante la actuación policial referenciada.
- c) Para el supuesto de que la actuación policial descrita haya dado lugar a la interposición de denuncia penal ante la comisaría de la Ertzaintza correspondiente al lugar en que ocurrieron los hechos, se dé traslado a esta Comisión de una copia del atestado o atestados policiales elaborados en relación con dicha actuación policial.

- d) Batzorde honi jakinaraziko dio esku hartu zuten ertzainek soineko kamerarik ote zeramaten esku-hartze hartan eta, baiezkoan, ea kamerak piztu ziren ekintza hura burutu bitartean.
- d) Se informe a esta Comisión si los agentes de la Ertzaintza intervinientes portaban cámaras de cuerpo durante la intervención y, en caso afirmativo, si las mismas llegaron a activarse durante el desarrollo de la intervención.

Era berean, Ertzaintzaren Zuzendaritzak harremanetarako arduraduna izendatzeko eskatu nahi dugu, Batzorde honekin komunikatzeko bide egokia ezartzeko asmoz, espediente honen instrukzioa arintze aldera.

Se interesa que por la Dirección de la Ertzaintza se indique una persona de referencia para establecer el oportuno canal de comunicación con esta Comisión a los efectos de agilizar la instrucción del presente expediente.